

# Euskalingua 25

## Aurkezpena

Irakurle on hori,

*Euskalingua 25*ek bost artikulua ditu, bat fonetika fonologia arlokoa, bi hezkuntzakoak, biografia bat eta *Euskalinguaren* zenbaki guztien katalogoa. Lehenengoan O. Gandiagak *Markina-Xemeingo* belaunaldien arteko azentuan aldaketarik izan den aztertu dau. Bigarreanean B. Bilbao, G. Ezkurdia eta K. Perezek talde lanean Gradu Amaierako Lanen baliagarritasunaz gogoeta idatzi dabe. Hirugarreanean I. Inuntziagak Gradu Amaierako Lanean aztertutako auzo eskola baten izaerari buruzko landa lana aurkeztu dau. Laugarreanean I. Sarriguartek Aita Soloeta-Dima zenaren biografian oinarrituta, euskara, irakaskuntza metodoak, atzerriko irakaskuntza eta beste hainbat gairi buruzko informazioa aurkeztu dau. Bosgarreanean L. Unamuno, M. Unamuno eta K. Perezek *Euskalingua* aldizkariak argitaratutako zenbakien azterketa egin eta katalogoa taxutu dabe, artikulua guztien informazioa era batera izateko.

Orkatz Gandiagak *Markina-Xemeingo azentua* izeneko artikuluan Bizkaiko herri horretako azentuaz jardun dau. EHUko ikasle honek, EUDIA ikerketa taldeak galdeketa egiteko erabili ohi duen metodologiaren baliatuta, belaunaldien arteko azentu aldaketarik gertatu den ala ez egiaztatzeko, Bizkaiko herri horretako emakume bi hautatu ditu lekuko; 27 eta 55 urtena izanik, belaunaldi bana ordezkatzeko dabe. Egileak, erantzunen analisis oinarritutako emaitzetan adierazten dauanez, belaunaldi biok darabilen azentuan ez dago aldaketarik.

Begoña Bilbao, Gurutze Ezkurdia eta Karnele Perezek *Hezkuntzaren Memoria eraikiz Gradu Amaierako Lanen bidez* artikulua idatzi dabe Gradu Amaierako Lanen (GAL) baliagarritasuna frogatzeko. EHUko Bilboko Irakasle Eskolan 2012/13 ikasturtean aurkeztutako zenbait GAL izan dabe aztergai. Ikasleek lanak garatueran, maistrak, auzo eskolak eta iraganeko irakaskuntzaren esparru diferenteak ezagutu ditue, euren lanbidea izango denaren esparru gaur ez hain ezagunak aurkitu ditue eta, iragana hobeto ezagutzeak euren lanbidea izango denaren ikuspegia zabaltzea ahalbidetu deutsee. Hori danorigatik egileek euskal pedagogiaren memoria osatzeko funtsezkotzat eta gaurko irakasleen formakuntzarako ekarpen onuragarritzat dabe GALa.

Iraia Inuntziagak *Igorreko Santa Lucia auzo eskola* izeneko artikulua idatzi dau, izen bereko GALaren landa laneko emaitzekin. Hasieran XX. mendeko aro politiko bakoitzaren irakaskuntza sistemaren aldaketak eta horren ondoriozko metodologia aldaketak landu ditu irakaskuntzaren eta auzo eskolen ezagutza formala izateko. Hurrengo ataletan, testigantzetan sakondu dau eta Santa Lucia auzo eskolaren historia berreraiki, 1920an auzotarrek eskola hau eraikitzen hasi zirenetik, berrogeita hamar urtetik gora joan ondoren, eskola itxi arte.

Iñaki Sarriguartek *Dimatik Manilara, Argentina eta Txinan barna. Aita Soloeta-Dima (1881-1964)* artikulua dakar, Diman 1881ean jaiotako Saturnino Soloetaren bizitza, anaia kaputxinoentzat Aita Fernando M<sup>a</sup> de Dima izan zena, ikergai hartuta. Informazioa bildu dau, besteak beste, haren euskera irakasle eta gramatikari lanari buruz, idatzi eta argitaratu zituen liburuei eta artikuluei buruz eta euskal kulturaren beste eragile batzuekin izandako hartuemonei buruz. Ekarpen honetan Aita Soloeta-Dimaren bizitza gorabeheratsuen barri emoten dau, haren heriotzaren 50. urteurrena betetzen denean, omen gisa.

Lorea Unamuno, Maribi Unamuno eta Karnele Perezek *Euskalingua 1-25 katalogoa* izeneko artikulua aurkeztu dabe. Lehenengo, aldizkari honen izaerari buruzko gogoeta egin dabe, sareratutako 25 zenbakien ibilbideari buruzko gogoeta, alegia, eta horretarako, parte hartu daben egileak, gaiak eta hizkuntzak aztertu ditue, besteak beste. Ondoren artikuluen informazioa dauan katalogoa egin dabe eta artikulua bakoitzaren izenburua MKAko *Euskalingua* guneagaz estekatu.

Aulestin, 2014ko abenduaren 1ean

Lorea Unamuno - lorea.unamuno@ehu.es

Maribi Unamuno - victoria.unamuno@ehu.es

Koeditoreak